8.5. Onddoak, zizak eta perretxikoak

Bai, hemen badira bastante klaseak, ezagutu egin behar dute, bai (...). Onddoa... onddo ona ezagutzen da aise, batek erran zidan... zahar batek. Hemen, por ejemplo, hau da onddoa, ez? hemendik hartzen duzu, ixkina honetatik, e! eta, zera... azalak behar du korritu azalak; hartu eta tirtt! Ez bada korritzen txarra da hura (...). Hortik ezagutzen da onddoa, bai, hortik ezagutzen da... nik proba egin dut eta onddo gaixtoak ezagutzen baititugu guk lehenagotik... hartu eta kask! hausten zaio axala, eta onari berriz txits! korritzen dio axala... bai, horretan dago sekretua.
(…)
Ink.: *Eta gero badira uste batzuk onddoen inguruan eta hola... (...) ttikiak ikusten dituzula eta ez direla hazten, edo...?*
Bai, eta hori egia da, e! nihauri pasatu zait hori, bai. Behin han baserrian ginela, baserriaren gaineko aldean hola, eta onddo ttiki batzuk ikusi nituen, eta nire baitan "hauek haziko dituk". Paratu nituen arbatz batzuk gainean, ardiek eta ez jateko... eta onddoak ez ziren hazi gehiago, akabo! hartan gelditu ziren.
(...) Edo golpean etortzen dira, edo nik ez dakit zer pasatzen zen onddoekin... pues, horixe pasatu zitzaidan batere ez ziren hazi haiek, bai... (…)
Ink.: *Eta gero ipurdia ere uzten da, ez?*
Bai, uztea hobe, hobe.
Ink.: *Hori zertarako?*
Hazia han gelditzen zaio, berriz hurrengo urterako edo... bai, hori hobe izaten da uztea beti, bai.

(Doneztebe)

Lehenago biltzen ziren onddoak izaten ziren... eta ez zen uste… urte guztian izaten zirela, eta biltzen ziren onddoak izaten ziren... urrian... urrian, oktubren, iratze egiten ari ginelarik. Eta orain eman dugu kontua aspaldian e... pues ateratzen direla... hasi maiatzean hogeita zazpitik edo... bitik... hirutik edo hasi, eta... beren... epoka dute... ia San Ferminak alde arte. Eta gero... Amabirjina... aurretik hasi, eta... ya berriz Amabirjina ondu arte, hogei bat egun... hamabost bat egunez.

Lehenbiziko ateratzen dira beheiti, beheitik, hasten dira beheitik gora, Frantzia aldetik... haiek gero segitzen dute goitik... e... *Norte* aldetik, eta gero ateratzen dira ya mendira hondarrerako. Eta... oa, gero izaten dute... gero hasten dira San Migel... aurrean, edo San Migel egunetan eta ya oktubre guztia.
Ink.: *Orduan badira etapa... diferenteak.*
Bai, badira etapa bat. Eta... xixak berriz izaten dira... primaderako xixak ate…ateratzen dira... ba... segun, batzuetan hasten dira apirilean... martxoan...
Ink.: *Hori zizak...*
Bai, xixak, xixa zuriak maiatza arte. Primaderako xixak.
Ink.: *Eta onddoek orduan zenbat… etapa dituzte?*
Onddoek badituzte... hiru etapa, eta... gero tartean ere ateratzen dira noiznahi. Osea, eta... etapa batetik bertzera bat edo bertze beti ateratzen da.

Eta gero izaten dute hazia, xuria, arroza bezala xuria. Eta batzuek erraten dute etaparen hondarrean izaten dela... eta nik erraten dut etaparen hasmentan dela. Eta ya haiek hasiz geroztik ya m… egun pare bat edo bezperatik hasten direla. Aldiro ez... ez dira sortzen, igual... ez du denborak ematen, eta hazia hiltzen da. Baina gero, haziak

joan behar du egunean baina egunean e... xuriago, brillanteago, politteko... eta... ya gero... joaten da pasatuz.
(…)
Ink.: *Eta gero onddoak ateratzeko ere ilargiak badu… eragina, ez?*
Ilargiak badu bere eragina... badu... niretako, nik, e... nik ezagutzen... osea, kalkulatu dudanez, ilberrian ateratzen dira ilber…berrian, ilargi berrian ateratzen dira... gehiago. (...) Eta, ilbeheran berriz ateratzen dira guttiago, eta zerbait baita ere ederragoa.
(…)
Orain e… ahal badaiteke moztu ipurdia han utzi. Erraten dute ipurdian duela hazia. Baina onddoa, txanpinoiak eta egiten dituzte, baina onddoak egiteko... sortzeko gizonak oraindik ez du inbenturik atera. Onddoa sekretua da.
(…)
Eta ateratzen dira, onddoak eta onddo gorringoak sortzen dira txikiak badira txikiak eta handiak badira handiak, kolpe batean. (...) Gaur biltzen dituzu toki batean igual bi kilo eta... da oso toki garbia, eta erraten duzu “bueno, denak bildu ditut”. Baina biharamunean... goizean joaten zara eta sortu dira igual hiru kilo. Segun tokia.
Ink.: *Eta orduan eztira hazten gero? Ez dira handitzen?*
Ez. Batzuek erraten dute baietz baina ni... nik egin dut proba eta ez dira hazten. Nik utzi ditut markatuta, eta erraten dute ez direla ikusi behar, eta ez dela ukitu behar eta ez dakit zer. Baina... niretako onddoa jaiotzen da kolpean eta den bezala, ttikia dena ttikia eta handia dena handia.
(…)
Hemen dena funtzionatzen duena da... pertsonak bezalaxe onddoak ere gorputzarendako ze denbora dagoen; denboraren tenplea behar du. Aunitzek erraten dute “Bai, euria egin du eta aterako da”, ez da hori. Behar du bere tenporada, behar du bere tenplea denborarena, eta... horiek: baldin bada eta sargori eta baldin bada hori... txanpinoia, primaderako txanpinoia, kazkabarra igual ari baldin badu eta... baldin badu arkoiris edo galtxagorri erraten den hori... eta... denbora bortxinga beroa, seguru aterako da ziza.

(Urrotz)

Orain, onddoa ikusten duzu txiki bat, gaur, eta aunitzek erraten dute hazten dela hura. Eta… behin ikusten baduzu ez da hazten, orain, baliteke… ikusi gabe haztea? Nik hori ez baitakit… baina, behin ikusiz gero… ez, ez. Aunitzek erraten dute “Bai, bai, hazten dira”, bai, puñetas! egiten dituk. Erraten diot “Utzi, hik harrapa ezak onddo txiki bat, utzi ezak ederki tapatuta, eta hoa biharamunean, ikusiko duk”.

(Ituren)

JATORRIZKO BERTSIOA

8.5. Onddoak, zizak eta perretxikoak

Bai, emen badie bastante klasiak, izautu in biaute, bai (...). Onddua... onddo ona izautzen da aisa, batek erran ziri... zaar batek. Emen, poejenplo, au da onddua, ez? emendiken artzen tzu, ixkiñ untiken, e! eta, zera... azalak bia... bar yu korrittu azalak; artu ta tirtt! ezpada korritzen txarra da ura (...). Ortiken izautzen da onddua, bai, ortiken izautzen da... nik prueba in dut eta onddo gaixtuak izautzen baittugu guk lenagotiken... artu ta kask! austen tzaio axala, ta onari berrizen txits! korritzen dio axala... bai, ortan dago sekretua.
(…)

Ink.: *Ta gero badira uste batzuk onttoen ingurun ta ola... (...) ttikiak ikusten dituzula ta ez direla azitzen, o...?*

Bai, eta ori egia da, e! niaunei pasatu zaitt ori, bai. Beiñ an baserrin giñela, baserrin gañiko aldin ola, ta onddo ttiki batzuk kusi nittun, ta nee battan "ok aziko ttuk". Patu nittun arbaz batzuk gañin, ardiek ta ez yateko... ta ondduak etziren azi geigo, akabo! artan geldittu ziren.

(...) Edo golpin tortzen die, edo nik eztait ze pasazen en onddukin... pues, orixe pasaz zitten, batere etziren azi ek, bai... (…)

Ink.: *Eta gero ipurdia ere utzitzen da, ez?*

Bai, uztia obe, obe.

Ink.: *Ori zertako?*

Azia an geldizen zaio, berriz urrengo urterako do... bai, ori obe izaten da uztia beti, bai.

(Doneztebe)

Leno biltzen tziren ondduak izaten ziren... ta etzen uste… urte guzin izaten tzirela, eta biltzen tziren ondduak izaten ziren... orrirun... urrirua, otubren, iratz itten ai giñeliken. Eta oain man duu kontua aspaldin e... pues atetzen direla... asi maiatzan oeita zazpitik edo... biatik... iruatik edo asi, eta... beun... epoka dute... ia San Fermiñak alde arte. Eta gero... Ama Berjiña... aurretik asi, eta... ya berriz Ama'rjña ondu artio, ogei bat egu... amabos bat egunez.

Lebizko atetzen dire betti, beitik, asten dire betik [g]ora, Frantzi aldetiken... e(k) gero segitzen dute gotti... e... *Norte* aldetik, eta gero atetzen dire ya mendira ondarreko. Eta... oa, gero zaten dute... gero asten dire San Migel... aurrin, o San Migel egunetan eta ya otubre guzia.

Ink.: *Ordun badire etapa... diferenteak.*

Bai, badire etapa at. Ta... xixa[k] perriz zaten dire... primaberako xixak ates...ten dire... ma... segun, batzutan asten dire apillin... martxun...

Ink.: *Ori sisak...*

Bai, xixak, xixa xuriak maiatza artio. Primaberako xixak.

Ink.: *Eta ondduek ordun zenbat… etapa dituzte?*

Onddue(k) battute... iru etapa, eta... gero tartin ere atetzen dire noisnai. Osea, eta... etapa bat'tik bertzera bat edo bertze beti atetzen da.

Ta gero zaten dute azia, xuria, arroza bezala xuria. Ta batzuk erraten dute etapan ondarrin ezaten dela... ta nik erraten dut etapan a... aspentan dela. Eta ya aiek asiz keroztiken ya m... egun pare bat o bezperetiken asten direla. Aldiro ezt... eztire sortzen, igual... eztu denborak maten, ta azia iltzen da. Miño gero, azia(k) yuan bar du egunin biño eunin e... xurigo, brillantego, politteko... eta... ya gero... yuaten da pasatuz.

(…)

Ink.: *Ta gero onddoak atetzeko ere illargiak badu… eragiña, ez?*

Illargia(k) badu bere eragiña... badu... neretako, nik, e... nik itzautzen... osea, kalkulatu dutenaz, ilberrin atetzen dire ilber... berrian, illargi berrian atetzen dire... geigo. (...) Eta, ilberan berriz atetzen dire guttiago, ta zerbait baita re ederrago.

(…)

Goaiñ e... al baditteke moztu... ipurdia an utzi. Erraten dute ipurdin dula azia. Biño onddua, txanpiñonak eta itten ttute, biño ondduak itteko... sortzeko gizonak oañik eztu inbenturik ateri. Onddua sekretua da.

(…)

Eta... atetzen dire, ondduak eta onddo gorringuk sortzen dire ttikiak badire ttikiak eta aundiak badire aundiak, kolpe batin. (...) Gaur bildutzen ttuzu toki batin igual

bi kilo eta... da oso toki garbia, ta erraten tzu “bueno, dena(k) bilddu ttut”. Bio biamune... goizin yuaten tzara ta sortu dere igual iru kilo. Segun tokia.

Ink.: *Ta ordun eztire azitzen gero? Eztire aunditzen?*

Ez. Batzuk erraunte baiez biño ni... nik in dut prueba ta eztire azitzen. Nik utzi ttut markatuta, ta erraten te ezterela kusi biar, da eztela ukittu biar ta eztakit zer. Biño... neretako onddua yaiotzen da kolpin eta den bezala, ttikia dena ttikia eta aundia dena aundia.

(…)

Emen dena funtziontzen duna da... personak bezalaxe ondduak ere gorputzandako ze denbora dagon; denboran tenplia biar du. Aunitzek erraten te “Bai, euria in du ta ateko da”, ezta ori. Bear du bere tenporada, bear du bere... e... bere tenplia denborana, eta... oiek: baldi’mada sargoi ta baldi’mada oe... txanpiñona, primaderako txanpiñona, kazkarrabarra igual ai baldi’madu eta... baldi’mado arkoiris edo galtxagorri erraten den ori... eta... denbora bortxinga berua, seguro ateko da xixa.

(Urrotz)

Oaiñ, onddua kusten tzu ttiki bat, gaur, ta aunitzek erraten te azizen dela ura. Ta… beiñ ikusten bazu ezta azitzen, oaiñ, balitteke… kus gabe azitzia? Nik ori ezpaitakit… biño, bein ikuszkeroz… ez, ez. Aunitzek erra te “Bai, bai, azizen ttuk”, bai, puñetas! itten ttuk. Erratn iot “Utzi, ik arrap zak onddo ttiki bat, utzi zak eberki tapatuta, ta guaie biamnin, kusko [du]k”.

(Ituren)